

Foru Aldundiak 650.000 euro baino gehiago inbertituko du Arabako errepideen segurtasuna hobetzeko

Zeharbideetan eta istripu ugariko errepide tarteetan esku hartuko du

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 4a. Arabako Foru Aldundiaren Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak 650.000 euro baino gehiago inbertituko ditu Arabako errepideen segurtasuna hobetzeko. Esku hartzeko programa horrek hiri zeharbideak eta istripu ugariko errepide tarteak izango ditu lehentasun.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du bide segurtasuneko prebentzio eta arintze neurrien kontratuaren lizitazioa, zeina esku hartze horiek egiteko oinarria izango baita, 655.895 euroan eta hamabi hilabeteko gauzatze epearekin. Esku hartzeak aurtengo urtearen azken hiruhilekoan eta 2027. urtean gauzatuko dira.

Programa horren kontura finantzaturako proiektuek abiapuntutzat dituzte udalek, administrazio batzarrek eta herritarrek egindako proposamenak, foru erakundeko bide segurtasuneko teknikarien txostenak eta Errepideen Foru Sarean 2021-2025 aldian izandako istripu tasaren azterlanaren ondorioak.

Kontratu horren bidez, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak jarduketak egingo ditu Arabako hainbat herritako zeharbideetan eta hiri barruko bide tarteetan ibilgailuen abiadura murrizteko. Jarduketan helburua seinaleztapen horizontala eta bertikala indartzea eta trafikoa lasaitzeko neurriak hartzea izango da, kasuen arabera.

Horrez gain, besteak beste, hondatuta dauden euspen sistemak ordeztuko dituzte, motorzaleentzat egokitutako hesi berriak jarriko dituzte arriskuko zonetan, eta tarte jakin batzuetan txirrindulariak ibili daitezkeela adierazteko seinale gehiago jarriko dituzte.

Esku hartze programak kontuan edukiko ditu Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak Arabako errepideetako istripuez aldizka egiten duen azterlanaren ondorioak. Azterlan horrek istripu ugariko bide tarteak zehazten ditu, eta haietan segurtasuna hobetzeko ekintzak planteatzen ditu. Haiek ere kontratu honen bidez finantzatuko dira.

Azkenik, segurtasun programak honako hauek ere jasotzen ditu: faunari buruzko seinale bereziak jartzea ehiza espezieekin istripu ugari izaten diren bide tarteetan, eta fauna uxatu eta erakartzen duten produktuak erabiltzea animaliak bidegurutze seguruetara bideratzeko (fauna pasabideak), eta, horrela haiek oraingo bidegurutzeetan ez sartzeko.

Foru Aldundiak A-3641 errepidea Okondon hobetzeko proiektua idazteko lana lizitatu du

Teknikoki zehaztuko ditu galtzada handitzeko, trazadura egokitzeko eta bidegurutzeak berrantolatze lanak

Foru Gobernu Kontseiluak onetsi du gaur Ibaguen eta Okondora sartzeko bidegurutzean A-3641 errepidea hobetzeko eta egokitzeko proiektua idazteko kontratua, 330.616 euroko aurrekontuarekin eta 12 hilabeteko epearekin. Proiektuak teknikoki zehaztuko ditu galtzada handitzeko, trazadura egokitzeko, eta bidegurutzeak eta bide horretako sarrerak berrantolatze egin beharreko lanak.

A-3641 errepidea Arabako Errepideen Tokiko Sarean dago, eta lurralde eginkizun garrantzitsua betetzen du Bizkaia Vitoria-Gasteizekin lotzen baitu Sodupe eta Amurriotik (A-624 errepidetik). 2016-2027 aldirako Arabako Errepideen Plan Integralak hura egokitzea eta hobetzea jasotzen du, 48,44 eta 58,29 kilometro puntuen arteko hamar kilometroko tarte batean, haren segurtasuna eta erabiltzaileen erosotasuna hobetzeko helburuarekin.

Bide hori Itzalde ibaiaren ibilguarekiko paraleloan doa, eta trazadura bihurgunetsua du, tarte batzuetan bihurgune itxiak eta sestra aldaketaren bat dituen, eta 6 metro baino gutxiagoko zabalerako galtzada estua, bazterbiderik gabe. Esku hartzearen jatorria, besteak beste, honako hauetan datza: plataforma handitzeko eta trazadura gutxienez 60 km/h-ko proiektu abiadurara egokitzeko beharra, zenbait tartetan 50 km/h-ko abiaduran.

Jarduketa horren beste helburu bat da errepide horretan dauden bidegurutzeak hobetzea – Arespalditzarekin lotzen den A-3624 errepidearekiko bidegurutzea eta Laudioarekin lotzen den A-3632 errepidearekiko bidegurutzea– eta finketarako, jabetzetarako eta bideetarako zuzeneko sarbide ugari segurtasun irizpideekin berrantolatzea. Proiektuak Okondoko eta Aiarako zeharbideak hartuko ditu barne, eta horietan abiadura moteltzeko neurriak aztertuko dira.

Esku hartze integral horren bidez, bide segurtasuna, funtzionaltasuna eta azpiegituraren gaitasuna hobetu nahi dira, indarrean dagoen araudira egokitzen dela bermatuz eta konponbideak optimizatuz ikuspuntu tekniko, ekonomiko eta ingurumenetik. Arreta berezia jarriko da jarduketa lurralde ingurunean integratzeko, eraginak minimizatuz eta proposatutako konponbideen eraikuntza bideragarritasuna ziurtatuz.

Jon Nogales Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak bilera bana egin zuen ekainean Okondoko eta Aiarako alkateekin, Jon Escuzarekin eta Prudencio Otegiarekin, hurrenez hurren. Bilera horietan konpromisoa hartu zuen uda honetan proiektu horren idazketa lizitatzeko, obren lehenengo fasea 2027. urtearen amaieran lizitatzeko xedearekin. Gobernu Kontseiluak gaur hartutako akordioak konpromiso horri erantzuten dio.

Arabako Foru Aldundiak 300.000 euro bideratu ditu familia zaurgarrien eta kontzejuen parte hartzea bultzatzeko energia berriztagarriko proiektuetan

Deialdiak komunitate energetikoetan eta beste ekimen berriztagarri batzuetan sartzea finantzatuko du, eta 2.000 euro arteko laguntzak emango dizkie pertsona fisikoei eta 5.000 euro artekoak kontzejuei

Gobernu Kontseiluak laguntza deialdi bat onetsi du, familia zaurgarriek eta Arabako kontzejuek energia berriztagarrien proiektuetan parte har dezaten errazteko. Dirulaguntza lerro horren helburua da herritarrak gehiago inplikatzeko trantsizio energetikoan, eta aurrera egitea Arabako ekonomia jasangarriago eta deskarbonizatuago baterantz.

Ekimenak, gainera, izaera sozial nabarmena du; izan ere, pobrezia energetikoko egoerei aurre egiten lagunduko du, pobrezia hori etxe batek energia horniduraren oinarritzko premiei aurre egiteko duen zailtasuntzat ulertuta. Laguntza horien bidez, Arabako Foru Aldundiak diru sarrera erreduzituak dituzten pertsonak energia komunitateetan eta energia berriztagarriari lotutako beste proiektu batzuetan sartzen lagunduko du.

Deialdiak 300.000 euroko diru zuzkidura du; haietatik 200.000 euro Arabako kontzejuentzat dira hasiera batean, eta 100.000 euro pertsona fisikoentzat.

Laguntzen gehieneko zenbatekoa 2.000 eurokoa izango da pertsona fisikoen eskaera bakoitzeko, eta 5.000 eurokoa kontzejuentzat, baina dirulaguntzak ezin izango du inola ere gainditu benetan eskatutako eta justifikatutako gastua.

Eskura dauden baliabideak optimizatzeko eta ahalik eta pertsona edo erakunde onuradun gehienengana iristeko, lerro baten soberakinak beste lerroaren eskaerak finantzatzeko erabili ahal izango dira, baldin eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaerak badaude.

Eskaerak aurkezteko epea 2026. urte osoan egongo da irekita. Laguntzak erregistro ordenaren arabera emango dira, erabilgarri dagoen aurrekontuko zuzkidura agortu arte. Era berean, eskaera bakarra diruz lagundu ahal izango da helbide bakoitzeko.

Baldintzei, dokumentazioari eta eskaera prozedurari buruzko informazio zehatza laster ALHAOn argitaratuko den deialdian jasoko da.

Ekimen hori EAJ-PNVren eta PSE-EEren gobernu taldeak eta Elkarrekin Araba-Podemos batzarkide taldeak lortutako aurrekontu akordioaren barruan kokatzen da.

Foru Aldundiak Caicedo Yusoko ur hornidura hobetuko du, Leciñanako ur biltegirako konexio berri batekin

Jarduerak 282.744 euroko inbertsioa izango du, eta herriko horniduraren segurtasuna eta kalitatea indartuko ditu

Gobernu Kontseiluak Caicedo Yusoko hornidura Leciñanako biltegiarekin lotzeko eraikuntza proiektua onetsi du. Jarduketa horrek udalerriko horniduraren segurtasuna eta kalitatea indartuko ditu.

Gaur egun, Caicedo Yusoko horniketa Campo Lafuente iturburutik eta tokiko zundaketa batetik datorren edateko urez egiten da. Bi bideek udal biltegiara eramaten dute ura, eta han bildu ondoren, banatu egiten da. Zundaketa bidezkoa, batez ere, agorraldian erabiltzen da, iturburuak emandako emaria eskatzen dena betetzeko nahikoa ez denean.

Jarduketa Sobrónko hornidura sistemaren handitzearen barnekoa da, eta Leciñana, Caicedo Yuso eta Molinilla udalerrietako ur hornidura indartzea du helburu. Sistema horretan, Leciñanako biltegi berriak tarteko banaketa puntu gisa funtzionatuko du, eta handik ura bultzatuko da Caicedo Yuso eta Molinillara.

Era berean, gaur egun Leciñanan dagoen osmosi instalazioa ez da beharrezkoa izango egungo funtziorako, eta ponpaketa ekipo berri batek ordeztuko du.

Arabako Foru Aldundiak Leciñana eta Caicedo Yuso arteko hoditeria gauzatzea aurreratzea erabaki du, azken urteotan herri horretako uretan behin eta berriz hauteman diren nitrato agerraldien ondoren. Horri esker, lehendik dagoen osmosi bidezko tratamendu sistema aprobetxatu ahal izango da, eta hornitutako uraren kalitatearen bermeak hobetu.

Proiektuak 1.800 metro inguruko luzera izango duen hoditeria berri bat instalatzea aurreikusten du, Lantarónko udalerriko lursailetatik igaroko dena osorik. Hodia Leciñanako biltegitik irtengo da. Bertan, ponpaketa sistema berri bat eta beharrezko elementu osagarriak instalatuko dira, eta Caicedo Yusoko zundaketa herriko biltegiarekin lotzen duen hoditeriarekin lotuko da.

Obrak zangan hondeatuz egingo dira, eta hiru hustubide eta lau bentosa instalatzea hartuko dute barne, bai eta azpiegiturak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren konexio eta birjarpen guztiak egitea ere.

Aurreikusitako inbertsioa 282.744,35 eurokoa da (BEZa barne), eta obrak egiteko epea zazpi hilabetekoa izango da.

Foru Aldundiak itzaleko eremu berriak finantzatuko ditu Lapuebla de Labarcako joko espazioetan, partaidetzako aurrekontuen ondorioz

Arabako Errioxako herritarrek aukeratutako proiektuari esker, egoteko eta jolasteko eremu bi estaliko dira, urte osoan zehar espazio publiko horien erabilera hobetzeko

Foru Gobernu Kontseiluak Lapuebla de Labarcako Udalari 90.285 euroko dirulaguntza ematea onetsi du, zenbait joko eremu estaltzeko proiektua gauzatzeko. Ekimen hori herri bozketaren bidez hautatu zen, 2025eko Arabako partaidetzako aurrekontuen prozesuaren barruan. Arabako Errioxako kuadrillako herritar gehienek babestu zuten proposamena izan zen, eta, beraz, herritarrek parte hartzeko programa horri esker gauzatuko den proiektuetako bat da. Programa horri esker, arabarrek zuzenean erabaki dezakete foru aurrekontuaren zati bat zertarako erabiliko duten.

Jarduketaren helburua izango da Jose Antonio Agirre parkean eta Erretiratuen plazan itzaleko eremuak sortzeko bi ehun estalki eraikitzea. Udalerriko familiak, haurrak eta adinekoak maiz ibiltzen dira bi espazio publiko horietan.

Azpiegitura horiei esker, bi espazioak baldintza hobeetan gozatu ahal izango dira hilabete beroetan eta baita egun euritsuetan ere, eta espazio publikoaren erabilera intentsiboagoa eta erosoagoa ahalbidetuko da urte osoan zehar. Jarduketak metalezko egiturak egitea aurreikusten du, eta horien gainean ehunezko estalki tenkatuak jarriko dira, bai eta argiztapen sistema integratuak ere.

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak kudeatzen ditu partaidetzako aurrekontuak, eta demokrazia parte hartzailerako tresna dira. Tresna horri esker, herritarrek beren udalerrri eta koadriletarako interes publikoko proiektuak proposatu, lehenetsi eta erabaki ditzakete.